



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

ALKATETZAREN DEKRETUA

COVID19AREN ONDORIOZ HERRIKO
MERKATARITZARAKO DIRU LAGUNTZAK
EMATEKO DEIALDIA

ONDORENGO ARAUDIA KONTUAN
HARTUTA:

Alde batetik, Euskadiko tokiko erakundeen 2/2016 legeak, 17.1 artikuluan, ezarri duenez udalerriek eskuduntza propioak egikaritu ditzakete ondorengo gaitan: herriko garapen ekonomiko eta soziala (25. atala

Beste alde batetik, diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, 17. Artikuluan, eta 887/2006 Errege Dekretuak, diru-laguntzei buruzko oinarrien beharra arautu dute. Hain zuzen ere, Soraluze Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2020ko urtarrilaren 30ean argitaratuak arautzen ditu diru-laguntzak emateko baldintzak eta prozedura.

LEGEZ DAGOZKIDAN AHALMENAK
EGIKARITUZ, EBATZI DUT:

BAT: 38.466 euroko diru-laguntza emateko oinarriak onartzea, udalerriko merkataria eta ostalarien alde, Covid-19 agatik osasun krisia kudeatzeko 463/2020 errege dekretuz martxoaren 14ean izendatutako alarma-egoerak ezarri zuten lokal zein establezimendu minoristak publikoari

DECRETO DE LA ALCALDÍA

CONVOCATORIA DE CONCESIÓN DE
SUBVENCIONES AL COMERCIO LOCAL POR
EL COVID-19

CONSIDERANDO LA SIGUIENTE
NORMATIVA:

Por un lado, la ley 2/2016 de instituciones locales de Euskadi en su artículo 17.1 establece que los municipios podrán ejercer competencias propias en los siguientes ámbitos materiales: el desarrollo local económico y social (apartado 25) .

Por otro lado, la ley General de subvenciones 38/2003, en su artículo 17, y el Real Decreto 887/2006, regulan la necesidad de bases para las subvenciones. De hecho, La Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Soraluze, publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 30 de enero de 2020, regula las condiciones y procedimiento para la concesión de subvenciones.

EN EJECUCION DE LAS COMPETENCIAS
LQUE ME CORRESPONDEN POR
LEY, RESUELVO:

UNO: Aprobar las bases para la subvención por importe de 38.466 euros, a favor del comercio y la hostelería del municipio en la medida en que han sido perjudicadas por la suspensión de la apertura al público o cierre obligatorio de los locales y establecimientos minoristas y de las



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

irekitzeko debekuak eta ostalaritza jardueren derrigorrezko itxitzeak kaltetuta izan diren neurrian (I Eranskina)

actividades de hostelería y restauración acordado en el artículo 10.1 del real decreto 463/2020 de 14 de marzo de declaración del estado alarma para la gestión de la crisis sanitaria con motivo del Covid-19. (Anexo I)

BI: Gastu hori 2020 urteko udal aurrekontuaren 1 1400.434.01.4311 aurrekontu-partidaren bidez bideratzea, oinarrietan zehaztutakoaren arabera.

DOS: Canalizar este gasto a través de la partida presupuestaria 1 1400.434.01.4311 del presupuesto municipal del año 2020 y según lo especificado en las bases.

HIRU: Oinarriak udal web orrian eta bertako gardentasun atalean argitaratzea.

TRES: .Publicar las bases en la web municipal y en el portal de transparencia de misma.

Izenpetua: Alkatea.

Firmado: El Alcalde.



SORALUZeko UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

I ERANSKINA

ANEXO I

Soraluzeko udalerrian Covid-19agatiko alarma-egoerak kaltetutako merkataritza, eta ostalariei zuzendutako diru-laguntza emateko oinarriak.

Bases para la concesión de ayudas económicas a personas comerciantes, y hostelería afectadas por el estado de alarma a causa del Covid-19.

LEHENA: Helburua eta prozedura

PRIMERA: Objetivo y procedimiento

Diru laguntza hauen helburua zera da:

El objetivo de estas ayudas es el siguiente:

Covid-19agatiko osasun krisia kudeatzeko 463/2020 errege dekretuz martxoaren 14ean izendatutako alarma-egoerak ezarri zuen lokal zein establezimendu minoristak publikoari irekitzeko debekuak eta ostalaritza jardueren derrigorrezko itxitzeak kaltetuta izan diren udalerriko merkataritzako eta ostalaritzako establezimendu zein pertsonen laguntza ekonomiko bat ematea.

Dar una ayuda económica a fondo perdido al comercio y la hostelería del municipio en la medida en que han sido perjudicadas por la suspensión de la apertura al público o cierre obligatorio de los locales y establecimientos minoristas y de las actividades de hostelería y restauración acordado en el artículo 10.1 del real decreto 463/2020 de 14 de marzo de declaración del estado de alarma para la gestión de la crisis sanitaria con motivo del Covid-19.

Deialdi publikoan eta lehiaketa, objektibotasuna eta berdintasun printzipioei jarraiki emango dira diru laguntzak.

Las subvenciones se concederán mediante convocatoria pública y conforme a los principios de concurrencia objetividad e igualdad.

BIGARRENA: Diru-laguntzaren zenbatekoa eta aurrekontu partida

SEGUNDA: Cuantía y partida presupuestaria de la subvención.

Diru-laguntzaren zenbateko osoa 38.466 eurokoa izango da. Gasto hori 1 1400.434.01.4311 aurrekontu-partidaren bidez bideratuko da.

La cuantía total de la subvención asciende a un total de 38.466 euros. Este gasto se canalizará a través de la partida presupuestaria 1 1400.434.01.4311



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

HIRUGARRENA: Ordainketa era eta banaketa irizpideak

Diru-laguntzak ordainketa bakarrean emango dira, irizpide hauen arabera:

a) Jatetxeak eta tabernak, hileko fakturazioa 10.000 euro artekoa dutenak: 700 euro kontratatutako langileen kopurua edozein dela ere.

b) Jatetxeak eta tabernak, hilean 10.001 eurotik 20.000 eurora bitarteko fakturazioa dutenak: 1.400 euro kontratatutako langileen kopurua edozein dela ere.

c) Jatetxeak eta tabernak, hilean 20.001 eurotik 30.000 eurora bitarteko fakturazioa dutenak: 2.200 euro kontratatutako langileen kopurua edozein dela ere.

d) Jatetxeak eta tabernak, hilean 30.001 eurotik 40.000 eurora bitarteko fakturazioa dutenak: 3.000 euro kontratatutako langileen kopurua edozein dela ere.

e) Jatetxeak eta tabernak, hilero 40.001 eurotik 50.000 eurora bitarteko fakturazioa dutenak: 3.800 euro kontratatutako langileen kopurua edozein dela ere.

f) Salmentara bideratutako lokal bat duten **ondasunen** merkataritzarako establezimenduak eta pertsona fisikoak, hau da, bezeroari aurrez aurreko eta zuzeneko arreta erakusketa gune baten bidez ematen diotenak (dendak): 600 euro.

TERCERA: Modo de pago y criterios de reparto

Las subvenciones se otorgarán en pago único, en atención a los siguientes criterios:

a) Restaurantes y bares con facturación mensual hasta 10.000 euros: 700 euros independientemente del número de personas trabajadoras contratadas.

b) Restaurantes y bares con facturación mensual desde 10.001 euros hasta 20.000 euros: 1.400 euros independientemente del número de personas trabajadoras contratadas.

c) Restaurantes y bares con facturación mensual desde 20.001 euros hasta 30.000 euros: 2.200 euros independientemente del número de personas trabajadoras contratadas.

d) Restaurantes y bares con facturación mensual desde 30.001 euros hasta 40.000 euros: 3.000 euros independientemente del número de personas trabajadoras contratadas.

e) Restaurantes y bares con facturación mensual desde 40.001 euros hasta 50.000 euros: 3.800 euros independientemente del número de personas trabajadoras contratadas.

f) Establecimientos y personas físicas destinados a comercio de **bienes** que ejercen su actividad en un local comercial es decir, un local dedicado a la venta con un punto de atención presencial y exposición directa al cliente (tiendas): 600 euros.



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

Zenbateko hori jendeari arreta zuzenean ematen dion langile baten lanaldi osoagatik esleitzen dela ulertzen da.

Se entiende que esta cantidad se asigna por la jornada completa de una persona trabajadora que atiende directamente al público.

Jendeari arreta zuzena emateko lokalean lanaldi osoan lan egiten duen pertsona gehigarriagatik 100 euro gehiago jasoko dira.

Por cada persona adicional que trabaje en el local comercial en atención directa al público a jornada completa se recibirán 100 euros más.

Lokalean hainbat pertsonak lanaldi murriztuan lan egiten badute, lanaldiaren ehunekoak gehituko dira lanaldi osora iritsi arte. Kontratu guztien artean bigarren lanaldi osoa lortzen ez bada, ez da 100 euroko zenbateko gehigarria jasoko.

Si en el local trabajaran varias personas a jornada reducida, se sumarán los porcentajes de jornada hasta llegar a la jornada completa. Si entre todos los contratos no se alcanzara una segunda jornada completa no se recibirá el importe adicional de 100 euros.

Hori egiaztatzeko, langileen lan-kontratuen kopia konpultsatua aurkeztu beharko da.

Este extremo deberá acreditarse con la copia compulsada de los contratos de trabajo de las personas trabajadoras.

g) **Zerbitzu-merkataritzarako** establezimenduak eta merkataritzak-lokal batean diharduten pertsonak, hau da, zerbitzu salmenta burutzen duen lokal bat dutenak eta bezeroari aurrez aurreko eta zuzeneko arreta erakusketa gune baten bidez ematen diotenak: 600 euro.

g) Establecimientos destinados a **comercio de servicios** y personas físicas que ejercen su actividad en un local comercial, es decir, en un local dedicado a la venta de servicios con atención presencial y exposición directa al cliente: 600 euros.

Zenbateko hori jendeari arreta zuzenean ematen dion langile baten lanaldi osoagatik esleitzen dela ulertzen da.

Se entiende que esta cantidad se asigna por la jornada completa de una persona trabajadora que atiende directamente al público.

Jendeari arreta zuzena emateko lokalean lanaldi osoan lan egiten duen pertsona gehigarriagatik 100 euro gehiago jasoko dira.

Por cada persona adicional que trabaje en el local comercial en atención directa al público a jornada completa se recibirán 100 euros más.

Lokalean hainbat pertsonak lanaldi murriztuan lan egiten badute, lanaldiaren ehunekoak gehituko dira lanaldi osora iritsi arte. Kontratu guztien artean bigarren

Si en el local trabajaran varias personas a jornada reducida, se sumarán los porcentajes de jornada hasta llegar a la jornada completa. Si entre todos los



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

lanaldi osoa lortzen ez bada, ez da 100 euroko zenbateko gehigarria jasoko.

Hori egiaztatzeko, langileen lan-kontratuen kopia konpultsatua aurkeztu beharko da.

Hirugarren oinarri honetan zehaztutako kopuru guztiak beherantz aldatuko dira baldin eta eskatzaile kopuruaren eta aurrekontu partidan jasotako 38.466.-euroko zenbateko osoaren arteko desoreka badago.

LAUGARRENA: Onuradunak eta kanporatzeak.

Diru-laguntza bakarra emango zaio itxita egon den establezimendu/pertsona bakoitzari, beti ere, Covid-19 agatik osasun krisia kudeatzeko 463/2020 errege dekretuz martxoaren 14ean izendatutako alarma-egoerak ezarri zuen lokal zein establezimendu minoristak publikoari irekitzeko debekuak eta ostalaritza jardueren derrigorrezko itxitzeak kaltetuta izan diren neurrian.

Guztiz itxita egon dela ulertuko da partzialki itxita egon den jardueraren kasua.

Zati batean itxita joko dira beren jarduera % 50ean edo horren azpitik egiten duten establezimenduak. Hori eskatzailearen zinpeko deklarazioaren bidez egiaztatuko

contratos no se alcanzara una segunda jornada completa no se recibirá el importe adicional de 100 euros.

Este extremo deberá acreditarse con la copia compulsada de los contratos de trabajo de las personas trabajadoras.

Todas las cantidades indicadas en esta tercera base se modificarán a la baja si hubiera un desfase entre el número de personas solicitantes y el montante global de la partida presupuestaria de 38.466.- euros

CUARTA: Personas físicas y jurídicas beneficiarias y exclusiones.

Se otorgará una única subvención a cada establecimiento/persona que se haya cerrado como consecuencia de la suspensión de la apertura al público o cierre obligatorio de los locales y establecimientos minoristas y de las actividades de hostelería y restauración acordado en el artículo 10.1 del real decreto 463/2020 de 14 de marzo de declaración del estado alarma para la gestión de la crisis sanitaria con motivo del Covid-19.

Se asimilarán a dicha situación de cierre total las actividades que hayan cerrado parcialmente.

Se considerarán parcialmente cerrados aquellos establecimientos que realicen su actividad en un 50%, o por debajo del mismo. Este extremo se acreditará mediante declaración jurada del



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

du, baina agintariek hori berretsi ahal izango dute.

Deialdi honen babesean diruz lagundu ahal izango dira aurreko artikuluan adierazitako jardueren titularrak, baldin eta 2020ko martxoaren 1ean alta emanda badaude Soraluze udal-mugartean Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (EJZ).

Deialdi honen aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira alarma-egoeran jardueraren % 100ean edo % 50etik gora irekita egon diren establezimenduak.

BOSGARRENA: Onuradunen baldintzak

Diru-laguntza emateko ebazpena eman aurretik egiaztatu beharko da bai zerga arloko bai gizarte segurantzaren arloko betebeharrak eguneratuta dituela.

SEIGARRENA: Eskariak aurkeztea.

Oinarri hauen LEHEN ERANSKIN agiria betetz eskatuko da dirulaguntza.

Eta udaletxeko erregistro orokorrean fisikoki edo web orri bidez telematikoki (www.soraluze.eus) aurkeztu behar da, dagokion dokumentazioarekin batera.

Eskabidea, jardueraren titularrak izenpetuta egon behar dute (eskuzko sinadura edo sinadura elektronikoko bidez)

solicitante, no obstante las autoridades podrá corroborar dicho extremo.

Podrán ser objeto de subvención al amparo de la presente convocatoria las personas titulares de actividades indicadas en el artículo anterior que estén de alta a 1 de marzo de 2020 dentro del término municipal de Soraluze en el Impuesto de Actividades Económicas (IAE).

Quedan excluidas del ámbito de aplicación de la presente convocatoria los establecimientos que hayan permanecido abiertos al 100% o por encima del 50% de su actividad, durante el estado de alarma.

QUINTA: Requisitos de las personas beneficiarias.

Se debe acreditar con anterioridad a la resolución de la concesión de subvención, que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la seguridad social.

SEXTA: Presentación de solicitudes.

Las solicitudes de subvención se realizarán cumplimentando el ANEXO I de las presentes bases.

Y se presentarán físicamente en el registro general del Ayuntamiento o telemáticamente a través de la página web (www.soraluze.eus) junto con la documentación correspondiente.

Las solicitudes deben estar firmadas por la persona titular de la actividad. (firma manuscrita o firma electrónica).



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

ZAZPIGARRENA: Epemuga

Eskariak aurkezteko 15 lan eguneko epea egongo da, diru-laguntzaren oinarri hauek udal web orrialdean argitaratu eta biharamunaz geroztik.

ZORTZIGARRENA: Aurkeztu beharreko dokumentazio gehigarria

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- 1) Eskabide-orria, behar bezala beteta (l. eranskina).
- 2) Eskatzailearen hileko fakturazioa egiaztatzen duen dokumentazioa.

Hileko jarduketaren zenbatekoa egiaztatzeko, hori justifikatzen duen kontabilitate-informazioa emango da, eta honako hauen kopia aurkeztu ahal izango da: jaulkitako eta jasotako fakturen erregistro-liburua; diru-sarreraren eta gastuen eguneroko liburua; salmenten eta sarreraren erregistro-liburua; edo erosketen eta gastuen liburua. 2020ko urtarrileko eta otsaileko batez bestekoa hartuko da hileko fakturaziotzat.

3) Bankuko kontu titularitatea egiaztatzen duen agiria, bere kasuan, diru laguntza bertara transferitzeko.

4) Lokalean jendaurreko arreta zuzenean lan egiten duten pertsonen lan-kontratuaren kopia konpulsatua.

SEPTIMA: Plazo de presentación

Se concede un plazo de 15 días laborales contados a partir del día siguiente a la publicación de las bases en la web municipal.

OCTAVA: Documentación complementaria a presentar

Se deberá de aportar la siguiente documentación:

- 1) La hoja de solicitud debidamente cumplimentada (anexo I).
- 2) Documentación que acredite la facturación mensual del solicitante.

La acreditación del importe de facturación mensual se realizará mediante la aportación de la información contable que lo justifique, pudiendo hacerse a través de la copia del libro de registro de facturas emitidas y recibidas; del libro diario de ingresos y gastos; del libro registro de ventas e ingresos; o del libro de compras y gastos. Se tomará como facturación mensual la media resultante de los meses de enero y febrero de 2020.

3) Documento acreditativo de la titularidad de la cuenta bancaria, en su caso, para la transferencia de la subvención a la misma.

4) Copia compulsada del contrato de trabajo de las personas que trabajan en el local en atención directa al público.



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

5) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (EJZ) 2020ko martxoaren 1ean alta emanda dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa.

6) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.

7) Zerga-betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.

Ez da beharrezkoa izango azken hiru dokumentuak aurkeztea, eskaera-orian dagokion atala markatzen bada eta Soraluze Udalari baimena ematen bazaio Gipuzkoako Foru Aldundiari edo Gizarte Segurantzari zuzenean eska diezazkion.

BEDERATZIGARRENA: Dirulaguntza emateko ebazpena: Alkatetza Dekretua

Prozedura ebazteko organo eskuduna alkatea izango da.

Honako edukia izango du alkate dekretu horrek: onuradunen izenak edo zerga identifikazio kodeak, dirulaguntzaren xedea eta zenbateko zehatzak.

HAMARGARRENA: Beste diru laguntza batzuekin bateragarritasuna.

Dirulaguntza hau bateragarria izango da beste administrazio publiko edo erakunde publiko zein pribatuek emandako dirulaguntzekin, baldin eta helburu bera badute

5) Documentación que acredite estar dado de alta en el Impuesto de Actividades Económicas (IAE) en fecha 1 de marzo de 2020.

6) Certificado de estar al corriente en las obligaciones de Seguridad Social.

7) Certificado de estar al corriente en las obligaciones tributarias.

No será necesario presentar los tres últimos documentos si en la hoja de solicitud se marca el apartado correspondiente autorizando al Ayuntamiento de Soraluze para que los solicite directamente a la Diputación foral de Gipuzkoa o a la Seguridad Social.

NOVENA: Resolución de concesión de la subvención: Decreto de Alcaldía

El órgano competente para resolver el procedimiento será el alcalde.

El decreto de alcaldía tendrá el siguiente contenido: nombre o número de identificación fiscal de las personas beneficiarias, objeto de la subvención y cuantías concretas.

DECIMA: Compatibilidad con otras subvenciones

La presente subvención será compatibles con las subvenciones otorgadas por otras Administraciones Públicas o entidades públicas y privadas en las que se contemple la misma finalidad.



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

COVID19AREN ONDORIOZ HERRIKO MERKATARITZARAKO DIRU LAGUNTZAK
SUBVENCIONES AL COMERCIO LOCAL POR EL COVID-19

ESKABIDE-ORRIA / SOLICITUD

ELKARTEAREN DATUAK / DATOS DE LA ASOCIACIÓN	
IZENA / NOMBRE	IFK / CIF
ESKATZAILEAREN DATUAK DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE	
IZEN-ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS	NAN / DNI
HELBIDEA / DOMICILIO	HERRIA / LOCALIDAD
	 @
JAKINARAZTEKO HELBIDEA / DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN	HIZKUNTZA / IDIOMA
	EUSKARAZ
	ELEBIETAN/BILINGÜE
ESKAERA / SOLICITUD	
<p>Honen bidez, zuzentzen dudan negozioari dagokion diru-laguntza eskatzen dut. Horretarako, eskabide honekin batera doakizu:</p> <p><input type="checkbox"/> Nire titulartasuneko negozioaren hileko fakturazioa egiaztatzen duen dokumentazioa</p> <p><input type="checkbox"/> Nire banku-kontuaren titulartasunaren egiaztagiria, diru-laguntza transferitzeko.</p> <p><input type="checkbox"/> Lokalean jendaurreko arreta zuzenean lan egiten duten pertsonen lan-kontratuaren kopia konpultsatua.</p> <p>Por medio de la presente se solicita la subvención correspondiente al negocio que regento, para ello adjunto a la presente solicitud:</p> <p><input type="checkbox"/> Documentación que acredite la facturación mensual del negocio de mi titularidad</p> <p><input type="checkbox"/> Documento acreditativo de la titularidad de mi cuenta bancaria para la transferencia de la subvención a la misma.</p>	
<input checked="" type="checkbox"/> Zerga ordainkizunak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak (Foru Ogasuna eta Udal Zerga Biltegiko Atala) eguneratuak dauzkala egiaztatzeko eskaera egiteko baimena.	<input checked="" type="checkbox"/> Autorización para que se solicite información sobre el cumplimiento de las obligaciones tributarias (Hacienda Foral y Recaudación Municipal) y frente a la Seguridad Social.
(Tokia eta eguna / Lugar y fecha)	(Sinadura / Firma)